

**EZAUGARRI TEKNIKOEN AGIRIA, GIPUZKOAN, OBRA PUBLIKOAREN EMAKIDA
BEZALA, BALORIZAZIO ENERGETIKOKO PLANTAREN DISEINUA ETA
LEHIAKETA EGITEKO AHOLKULARITZA JURIDIKOKO KONTRATUA
PROZEDURA NEGOZIATUAREN BIDEZ ETA PUBLIZITATEZ KONTRATATZEA
ARAUTUKO DUENA**

1	SARRERA ETA AURREKARIAK	2
2	XEDEA	3
3	KONTRATUAREN IRISMENA	3

1 SARRERA ETA AURREKARIAK

Gipuzkoako Hondakinen Kudeaketa SAU sozietatea 2008ko otsailaren 20an sortu zen.

Sozietateak berezko baliabide eta zerbitzu tekniko gisa dauka Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioa, eta beraz, hari aginduak eman eta kontratuak esleitzeko aukera dauka, betiere kasuan kasu organo eskudunek xedatutako termino eta baldintzetan.,

Sozietatearen xede sozial gisa zehaztu zen Hiri Hondakinen eta Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioak kudeatu beharreko bestelako edozein hondakinen bideraketa-sarea kudeatzea. Hau da, besteak beste, transferentzia-estazioetatik hondakinak jasotzea eta horiei Gipuzkoako Hondakinen Kudeaketarako Zentroan tratamendua ematea. Lan horien truke, tarifa jakin bat kobratzen die Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioak Mankomunitateei.

Orain arte, Gipuzkoako Hondakinen Kudeaketa SAUk baditu konpostatzeko plantak Epele-Bergaran eta Lapatxen, transferentziaguneak eta, halaber, ontziak tratatzeko plantak. Horrez gain, balorizazio-plantaren plataforma ere eraiki da. Hala ere, errausketa-instalazioa bera, eta tamaina txikiagoko beste instalazio batzuk – biometanizaziorako planta, besteak beste–, garatu gabe daude oraindik.

Horretarako jatorrizko diseinu juridiko eta finantzarioa oinarrituta zegoen banku-finantzazioaren harpidetzan, Project Finance eskeman, GHK-tik bertatik, eta baita GHKZren elementuen obra-kontratuaren bidezko kontratazioan ere. Eskema hori ezin da gaur egun erabili, Aldundiaren kontuetako zorraren finkapena dela eta. Arrazoi horrengatik, errausketa-instalazioaren finantzazioa kudeaketa-eredu berri baten bidez gauzatzea erabaki da; Kontsortzioak eskaini eta kontratatuko du kudeaketa-eredu berria, GHKren laguntzaz, prozesuaren eta etorkizuneko kontratuaren kudeatzaile bezala, eta, hasiera batean, GHKZren ustiapenaren titularra izango da.

Prestatu beharreko kontratu- eta finantzazio-eredua definituta dago jadanik: PPP kontratu bat egingo da, DBFOM motakoa, obra publikoaren emakidaren irudiaren bidez gauzatu eta lehiaketa irekiaren bidez eskainiko dena.

GHK-k eskema hori abian jarri eta lizitatzeko aholkularitza juridikoko zerbitzuak kontratatu nahi ditu kontratua sinatu arte.

Definitutako kontratu-eskema DBFOM motakoa da: kide pribatuak obren behin betiko diseinua prestatzeko ardura izango du, eta halaber, eraikuntzaz, finantzazio osoaz (lursailak eta jadanik eginda dauden jarduketak batzuk izan ezik, gutxienezko izaerakoak proiektuko zenbatekoei dagokienez; ez dago aurreikusita emakidadunak horien gaineko kontraprestaziorik edo ordainketarik egitea), eta instalazioaren funtzionamenduaz eta mantentze-lanez arduratuko da epe luzean (bukatu behar diren finantzazio-azterlanen arabera, gutxi gorabehera 30 urte kalkulatu da).

Kontsortzioak kontratatuko du kide pribatua, eta bere ordainsaria, hasiera batean, GHK-k ordainduko du, kontratuaren kudeatzaile eta zerbitzuaren titular bezala, erakundeak gordetzen duen energiaren salmenta eginda biltzen dituen sarrak erabilia, eta mankomunitateek zerbitzuaren truke ordainduko duten terifaren bidez. Ordainsaria prestasunaren arabera ordainketetan oinarrituta egongo da, eta osagai aldagarri bat izango du, tratatutako tonako, eragiketaren kostu aldakorrak estaltzeko (tonako ordainketa). Eskema hori aldatu egin liteke eta bolumenean oinarritutako eskemara pasa, ondorio horretarako igae-k eman ditzakeen adierazpenen arabera; hala ere, ez da aldaketarik espero gaurko egunean aurredefinitutako ordainketa-esparruan.

2 XEDEA

Kudeaketa-eredu berriaren behin betiko egitura definitzen eta eredu hori abian jartzen laguntzea: kontratuaren idazketa, kontratua onartuta egon arte; babesa lizitazio-prozesuan, sinaduraren bidez ezarri arte. Barnean sartuko dira beherago deskribatutako jarduerak, gutxienez.

Aztertzea Gipuzkoako Foru Aldundiak eman dezakeen kapital-laguntza teoriko bat, edo Aldundiak bere garaian GHKZren % 33 finantzatzeko hartu zituen konpromisoen isla gisa ematea aurreikusten den aurrekontu-laguntza, seguruenik modu diferituan ematekoa bera, bateragarriak diren estatu-laguntzei buruzko erregulazioarekiko.

Laguntza hori inplementatzeko aukeren artean, eta aholkulari juridikoak egin beharko duen analisia hor egongo bada ere, aztertzen ari da eraikuntzan zehar kapital-laguntza gisa ordaintzea (hori da aukeren artean desegokiena), PPP sozietateari ordainsariaren parte bat zuzenean ordaintzea, edo kontsortzioari zenbateko horiek ordaintzea, hain zuzen kontsortzioak emakidadunari ordain diezazkion, edo kopuru horiek GHKri ordaintzea, honek likidatu ditzan GHKren tarifako sarreraren eta beste sarrera batzuen kargura egin beharreko guztirako ordainketen barnean.

3 KONTRATUAREN IRISMENA

Eginkizun hauek gutxienez egingo dira:

- Baldintza administratiboen agiria idaztea.

Aholkulari juridikoak definitutako PPP eredua eta lizitaziorako estrategia abian jartzeko ardura izango du (kaudimen-irizpideak eta derrigorrezko mailak definitzea, ebaluatzen irizpideak definitzea eta eskaintza aukeratzea); nolana ere, finantza-aholkulariak ere parte hartu ahal izango du finantza-kontuen diseinuan nahiz arrisku nabarmenen esleipenaren bukaerako diseinuan, eta baita bezeroak edota bere aholkulari teknikoak eskainiko dituen inputen diseinuan ere.

Horiek horrela, zehazki:

Ordaintzeko mekanismoari dagokionean, finantza-aholkulariaren eta aholkulari teknikoaren laguntza izango du, edota horiek prestatzen dituzten jarraibide eta

gomendioak, bezeroak baliozkotuak izango direnak, aholkulari juridikoak horri buruz azaltzen dituen iritziak baztertu gabe.

Finantza-aholkulariak helaraziko dion arriskuak banatzeko eskema abian jarriko du; eskema hori lantaldean eztabaidatuko da, kontratuan jaso baino lehen.

Aholkulari juridikoak, kasu guztietan, zaindu beharko du kontratuaren bukaerako emaitzak SEC 2010 araudian ezarritako irizpideak bete ditzan, eta, aldi berean, merkataritzaren eta finantzen alorreko bideragarritasun-maila handia mantenduko da, betiere interes publikoa babestuz.

- Ezaugarri teknikoen agiriaren idazketa koordinatzea. Edukiak, hasiera batean, aholkulari tekniko batek prestatuko ditu, eta aholkulari juridikoak gainbegiratu eta osatuko ditu.

Aholkulari juridikoak ezaugarri teknikoen eta baldintza administratiboen agirien koherentzia zainduko du.

- Lizitazioa egin baino lehenagoko izapide guztietan laguntza ematea: aurretzako iragarkia, espedientea Ogasun Ministerioko ebaluaziorako bulegora igortzea, bideragarritasunari buruzko azterlana argitaratzea, etab., eta izapideak eta epeak beteko direla zaintzea.

- Agiriaren inguruko kontsultak eta erantzunak kudeatzea.

- Eskaintzako dokumentazioa aztertzeke laguntza ematea, eskaintza tekniko eta ekonomikoa ebaluatzeke lanak kanpo.

- Kontratua esleitu eta sinatzeko prozesuan laguntza ematea, sinatu baino lehenagoko betebeharrak egiaztatzeke lotutako zuzentarauak zehaztea barne.

- Aholkulari juridikoak txosten bat idatzi beharko du, eta bertan egiaztatu beharko da SEC 2010 araudian Administrazioaren aktibo eta pasibo bezala zenbagarria ez den eragiketari dagokionean ezarritako irizpideak betetzen direla.

- Proiektuaren arau-esparruan beharrezkoak diren aldaketak eta doikuntzak ezarriko dira: Foru-araua, Kontsortzioa-GHKren esparru-akordioa, estatutuak, etab. Kontsortzioak PPP kontratatzea proiektuarekin bateragarri egiteko.

Ildo horretan, aholkulari juridikoak aurre-egituraketako faseari buruzko txostena idatziko du lehenago, aldatu behar diren alderdiei buruz.